

EH Bildu talde politikoa Elkarrekin Donostia talde politiko mistoa

Grupo político EH Bildu

Grupo político mixto Elkarrekin Donostia

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián
Tel. 943481717

SUHILTZAILEEN GAINEKO KONTROL MOZIOA

EH Bildu udal taldeko zinegotzi Jabier Vitoria Romak eta Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakitza hartu eta udal suhiltzaileek salatutako prekaritate egoeraren gaineko **KONTROL MOZIO** hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran aztertzeko. Mozioa 2023ko irailaren 18an Zerbitzu Orokorren Batzordean egindako interpelazioen ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udal suhiltzaileek protesta eta salaketa ekintza batzuk egin dituzte daukaten egoera prekariora agerian uzteko (giza baliabide eta baliabide material gabezia, antolamendu-gabeziak...), eta larrialdiei, suteei, erreskateei, salbamenduari, uholdeei eta beste gertakari batzuei erantzuteko funtsezko zerbitzua denez, herritarrak egoera horien aurrean artatzeko eta babesteko, beharrezkoa da Udalak eta, bereziki, Udal Gobernuak berehala ekitea arazo horiek guztiak konpontzeari.

Hala, iraileko Zerbitzu Orokorren Batzordean EH Bilduk eta Elkarrekin Donostiak horren gainean galdetuta, ez ziguten behar adinako erantzunik eman, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bilera batzuk egin behar zituztela besterik ez ziguten esan, deus ere ez zerbitzua berritzeko, hobetzeko eta egungo eta etorkizuneko premietara egokitzeko hain beharrezkoa den plangintzaren eskaeraz.

Urrian egindako agerraldian plangintza egiteko zailtasuna azpimarratu zuten.

Hori dela eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak dakarren **KONTROL MOZIOA**:

1.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio hiru hilabete baino lehen legealdi honetako Plan Estrategikoa egiteko suteen prebentzio eta itzaltze eta salbamendu zerbitzuarentzat, han egin behar diren jarduerak eta inbertsioak planifikatzeko.

2.- Plan horrek, gutxienez, honako hauek jaso behar ditu, xehe-xehe eta urgente:

- Plantilla handitzea, zerbitzua ematen dion biztanle kopuruari eta lurraldeari behar bezala erantzun ahal izateko eta zerbitzua seguru egin ahal izateko adina.
- Urte anitzeko inbertsio plana, diren inbertsio premiak bilduko dituen; besteak beste, ibilgailuen flota eguneratzea eta Garbera parkeko instalazioak egokiak eta behar diren baldintzetan izatea (eraikinak, bulegoak, ikasgelak...).



EH Bildu talde politikoa Elkarrekin Donostia talde politiko mistoa
Grupo político EH Bildu Grupo político mixto Elkarrekin Donostia

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián
Tel. 943481717

- Segurtasunean inbertitzea; hala nola, prestakuntza jarraitu eta eguneratua, behar adinako babes-ekipoak, eta abar.

Donostia, 2023ko urriaren 19a

Jabier Vitoria Roma
EH Bilduko zinegotzia

Arantza Gonzalez Garcia
Elkarrekin Donostiako zinegotzia